

2015ean hondakinen birziklatze tasa maximo historikora ailegatu da, % 35,18tara iritsiz

6 urtetan zonaldean sortzen diren hondakinen % 74,53 zabortegian lurperatzeatik % 64,82ra pasatu gara

Baztango Udaletik eta Malerreka eta Bortzirietako Mankomunitateetatik eskertu nahi diogu jendeari hondakinak bereizteko egiten ari den ahaleginagatik, gero birziklatu ahal izateko.

2015ean 9.789 tona etxe eta merkataritza hondakin kudeatu ziren. Horietatik, 3.443 tona hondakinak bereiz biltzeko ditugun zerbitzu desberdinetan jaso ziren (paper-kartoi, beira, ontziak, materia organikoa, olio, arropa, tamaina handiko trasteak, etab.), hau da, guztizkoaren **% 35,18**. Gainerakoa, 6.345 tona (**% 64,82**), errefusa zaborrontzietan (berdeak) nahasita jaso zen eta Tuterara garraiatu, Erriberako Mankomunitateko zabortegian lurperatzeko.

Igoerarik handienak **materia organikoa (%60,07), ontziak (%36,53) eta arropan (%36,11)** eman ziren. Egurran (%15,46), olioan (%13,32), paper-kartoiaren (%1,93) eta siloetako plastikoetan (%1,67) ere datuak hobetu ziren.

Bertze aldetik, beiran (%-0,32) eta gailu elektriko eta elektronikoetan (%-0,71) ehunekoak jaitsi ziren, jaitsiera handienak **hondakin bereziak eta arriskutsuetan (%-10,76) eta txatarran (%-23,55)** emanez.

Joera orokorra oso positiboa izan arren eta, grafikoan ikusten den moduan, ehunekoak urtero-urtero handitzen ari baldin bagara ere, oraindik araudiak markatzen duenetik hagituz urrun gaude.



Hondakinen Legearen arabera, 2020. urterako % 50 birziklatu behar dugu.

Gainera, materia organikoari dagokionez, Nafarroan 2025erako %70era ailegatu behar dugu, eta 2015ean %25era ailegatu ginen.

Beraz, birziklapen datuak hobetzen ari baldin bagara ere, oraindik lan handi dugu egiteko araudiak markatzen dituen helburuetara ailegatzeko.

Gainera, ez dugu ahantzi behar birziklapenak onura aunitz dituela, bai ekonomikoak bai ingurunearenak:

- Erabilitako beirazko ontzi tona bat birzikltzeak **130 litro fuel** aurrezten ditu
- Plastikozko botil bat birziklatuz **bonbilla bat 6 orduz piztuta** mantentzeko behar den energia aurrezten dugu; eta birziklatutako lata bakoitzarekin **telebista bat ordu batez piztuta** mantentzeko
- Birziklatutako brik tona bakoitzeko **1.500 kg egur, 100.000 litro ur eta 221 kg gasoil** aurrezten ditugu
- Egunkari tona 1 birziklatzeak **4.000 Kwh elektrizitate** aurrezten ditu, **3 logelako etxebizitza bat urte batez hornitzeko** adina

Etab.